

# Ahots autoktonoak



KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE  
LITERATUR ZALEA


Joan den martxoaren 23an, Seuil frantses argitaletxe ospetsuak abiarazi zuen literatur sail berri bat, “Ahots autoktonoak” deitua. *Un livre dans ma valise* (Liburu bat nire balizan) webgunean, Laurence Baulande sailaren zuzendariak azaldu zuen orduan egitasmoaren xedea dela mundu osoko eleberrri idazle autoktonoen publikatzea, etor daitezzen “Ameriketatik, Asiatik, Pazifikotik, Ozeaniatik [sic] eta Europatik ere bai”. Hain zuzen ere, helburutzat hartua du “Populu Lehenei” ahotsa eskaintzea, “haien literatura bizitasun izugarrikoa” delako. “Populu Lehenei” deritze, Nazio Batuen Erakundearen arabera, beren lurra kendua izan zaizkien jendarteei. Ezen -harritzekoa, gero!-, indigenen artean badaude egiazko “autoreak”, gai direnak poesia, eleberrri beltzak edo “literatura orokorra” ekoizteko. “Ahots autoktonoak” sailak emanen die, segur, “ikusgarritasuna” eta “zilegitasuna”, modu “militantean” emanen baitie hitza “luzaz isildu direnei”.

Plazaratua izan den lehen nobelak *Cinq petits Indiens* (Bost indio txiki) du izenburutzat. Istorio “polifonikoa” da, aurkezpenak dioenez, baina ingelesez idatzi zuen Michelle Good cree populuko egileak (*Five little Indians*) eta Isabelle Mailletek du itzuli frantsesera. Kalitate literario ukaezina du liburu horrek, 1960ko hamarkadan Kanadako barnetegietatik askatuak izan ziren milaka gazte autoktonoren bizipen latzez irakaspen soziologikoa zabaltzeaz gain. Saileko bigarren eleberria apiri-

lean atera zen: Melissa Lucashenk idatzi *Celle qui parle aux corbeaux* (Belearekin mintzatzen dena) da, eta Australiako ingelesetik itzuli du David Fauquembergek. Bortizkeriaz josi liburu sutsu horretan, segitzen dugu Kerry Salter, emazte aborigena lesbiana, Harleyz garamatzana bere familia eta sorterri zapartatuengana. Istorio zinez urragarria, estilo bizi-bizian idatzia.

Bi eleberriei nabaritzen zaie, ingelesaren gibeletik, beste hizkuntzarik. Bigarrena, bereziki, argot eta *bundjalung* hitzez ereina da. Min eman diezaguke, hala ere, gure nortasuna hizkuntzaren erabileran oinarritzen dugunoi, orriz orri pentsatzea zapaltzaileen mintzairan sortu direla, oro har, literarioki zoragarri diren eleberrri horiek. Datorren ekoizpenak izan beharko luke Niillas Holmberg samiaren *La femme grenouille* (Andre igela), hori bai samieraz sortua.

Seuil argitaletxeak sail berezia pentsatzeak gogorarazten dit Markus Messlingen saiakera, *L’universel après l’universalisme* (Unibertsalismoaren osteko unibertsalia) (Paris, PUF, 2023): Europak, azkenean, onartzekoa du bere lehenagoko balio unibertsalek ez dutela jendarte aniztasuna kontutan hartzen, dio Messlingenek, eta egiazko unibertsaltasuna oraindik goiti etorriko da. Bizkitartean, kultura frantsesari ez zaio hain erraz bere dogmatismo zaharra baztertzea, eta sailkapen bereziak as-



DOM CAMPSTRON

matzen ditu exotikoa zaiona ulertzen saiatzeko, ohartzeko alor nagusietatik kanpo ere literatura badagoela.

2015ean *Enbatan* agerrarazi zuen artikulu batean, Peio Etcheverry-Ainchartek zioen jokoz kanpo aritzea litzatekeela hausnartzea euskaldunok “autoktono” gisa sailkatu beharko genukeenetz geure burua: sailkapen guzietatik haratago, bizi aldakor eta konplexuan xut irautea eta bide egitea da gure benetako erronka erreala.

Irakur, bada, Good eta Lucashenkoren obrak, ez literatura autoktonoa direlako, ez eta ere genero-literatura, literatura lesbiana, literatura post-kolonialista, literatura errealista edo edozein gisara sailka daitezkeelako, baizik eta, soilik, literarioki idatziak direlako, hots, literatura direlako. ●